

## 1. IDAZLANA (10 puntu)

/ 10

### Oharrak:

- Gogoratu 35 –50 bitarteko hitz kopurua idatzi behar duzula.
- Garbi idatzi eta saiatu letra garbia egiten.

### Egitekoa: e-mail bat idatzi

Iragarki hau ikusi duzu egunkarian.

Zuk, orain, lagun bati idatzi eta gonbidatu ezazu elkarrekin joateko. Lagunarekin gelditzeko lekua eta ordua ere proposatu..

### *Zirriborroetako orria*



### **PERKUSIOA & DANTZA**

Mayumana talde israeldarra Iruñeko Baluartan izango da asteburuan. Dantza, musika, umorea eta batez ere erritmoa eskainiko dute, zazpi emanalditan. Gaurtik igandera arte egongo dira Iruñean. Ordutegia Baluartan kontsultatzen ahal duzu.

## 2. IDAZLANA (10 puntu)

/ 10

### Oharrak:

- Gogoratu 70 – 90 bitarteko hitz kopurua idatzi behar duzula.
- Garbi idatzi eta saiatu letra garbia egiten.

### Egitekoa: e-mail bat idatzi.

Uda honetan euskara ikastera barnetegi batera joan nahi duzu. E-mail bat idatzi AEK-ko arduradunari.

E-mail horretan eman zure datuen berri: non ikasi duzu, noiztik, norekin, zein mailatan, astean zenbat orduz, zein libururekin...

Baldintza edo kondizioei buruzko informazioa eskatu: prezioa, lekuak, datak, ikas-materiala...

**Zirriborroetako orria**